

# noaua

**Euskaraldiari  
ekiteko garaia  
heldu da**

**Hurbilagok  
atrakzio parke bat  
antolatuko du  
Gabonetan**

**Larunbatean,  
Gazte Eguna**



**Harrera ederra izan du  
aurtengo Kulturaldiak**

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*ileapaindegi*

**mistoa**

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



**FUNERARIA GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...•ERRAUSKETAK

[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

KAZETARI BAT KONTRATATZEKO NOAUA!

**KAZETARI BAT KONTRATATZEKO LAN DEIALDIA NOAUA! KULTUR ELKARTEAN**

**PROFILA:**

- Kazetaritzan lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere).
- EGA edo baliokidea.
- Gida-baimena.
- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

Curriculum-a noauara ekarri edo bidali:  
NOAUA! Kultur Elkarteak | Bordaberri 3, 20170 Usurbil | E-postaz: [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

## Albiste iruditán

# Istripuak eta etenaldiak N-634 errepidean

**E**zustekoen astea N-634 errepidean. Ondoko irudiko istripu ikusgarria jazo zen azaroaren 13an, iluntzean, San Inazioko zubi ondoan, Osinalde eta Zumartegi industriaguneak errepidearekin lotzen dituen sarbidearen parean. Bi autok elkar jo zuten. Istripuaren ondorioz, pertsona bat eraman zuten zaurituta Donostia Ospitalera.

Biharamunean beste istripu bat jazo zen errepide berean Aginagan. Eta Txikierritik Troiara bidean erreil bat itxi behar izan zutenez, auto ilara luzeak. Udazken hasieran egin lanak egin zituzten ingurune berean izan zen. Errepide bazterrean jauzi ziren zuhaitz puskak bildu eta ingurua garbitzeko itxi zuten errepideko erreil bat. Auto ilara luzeak eragin zituen.



Bi autok elkar jo zuten azaroaren 13an N634 errepidean, Osinalde eta Zumartegi industriaguneen sarbidearen ondoan. Biharamunean beste istripu bat jazo zen Aginagan.

## Laburrean

### Errigoraren kutxen banaketa

Azaroaren 29tik abenduaren 4ra, tarte horretan jasoko ditugu kutxak NOAUA!n. Jasotakoan eskatzaileekin hartuemanetan jarriko gara. Produktuon bila zatozterean egin beharko dituzue ordainketak.

### 1952an jaiotako bazkaria, abenduaren 2an

Abenduaren 2an bilduko dira bazkariarako Antxeta jatetxean, 14:00etan. Izen emateko deitu azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

### Gripearen aurkako txertoa jartzeko garaia da

Abenduaren 5era arte iraungo du kanpainak. Txertatu aurretik, hitzordua eskatu ambulatorioan bertan edo osasun etxera deituta. Hemen telefono zenbakia: 943361543.

# noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaUA.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aroa Etxeburua Ugartemendia

## Dena aldatzen da...

**A**urreko astean Ines Osinagaren ahotik nire belarrietaraino iritsi ziren hitz hauekin nabibil bueltaka egunotan. Julio Numhauserrenak diren hitz hauek Mercedes Sosak abesten ditu "Todo cambia" abestian, eta Miren Amurizak euskaratu zituen Berriako iritzi artikuluan batean. Kate luzea nireganaino iritsi artean.

Aurrerantzean idatziko dudana aurkezteko egokia iruditut zait hitz hauek zuekin elkarbanatzea:

Aldatzen da azalekoa, muina ere aldatzen da; aldatzen da pentsaera, munduan dena aldatzen da. Klima aldatzen da aroz eta artaldeak zelaiz; dena aldatzen da, beraz ez harritu aldatzen banaiz.

Eskuz esku aldatzen du dirdira diamanteak, txoriak habia eta arnasa amoranteak. Ibiltariak bidea aldatu egiten du maiz; dena aldatzen da beraz, ez harritu aldatzen banaiz.

Dena aldatzen da, dena aldatzen da... Dena aldatzen da, dena aldatzen da...

Gauetz aldatzen da alde eguzkiaren sarea; udaberriaren soinekoz aldatzen da landarea. Piztiak ilajez eta aitona zaharrak bisai(a)z, dena aldatzen da, beraz, ez harritu aldatzen banaiz.

Ordea, ez da aldatzen ezerगतik nire grina; nire herriaren memoria, nire jendearen mina. Bart aldatu zenak bihar aldatzen segi dezala, paraje urrunotan ni aldatu naizen bezala.

Dena aldatzen da, dena aldatzen da... Dena aldatzen da, dena aldatzen da...

Dena aldatzen da. Naturak lotsarik gabe erakusten digu bere izaera ziklikoa. Udazkenean tristuririk gabe askatzen dituzte hostoak zuhaitzek, negua biluzik igarotzen dute. Badakite beharrezkoa dela hosto zaharrak hiltzen uztea, uda-

berrian kimu eta lore berriak haz daitezten. Hain natural egiten dute. Guri ordea hainbeste kostatzen zaigu gure burua aldatzen ikustea...

Hilekoaren zikloan zehar ere ilargiak bezala aldatzen dugu fasez. Aldatzen dira gure emozioak, gure aldartea, gure energia maila, gure sormena, gure hormonak, gure azala. Baina gizarte honetan aldakorria izatea ezaugarri negatibo modura ulertzen da, sistemak nahiago gaitu lineal eta ez zikliko. Batez ere, honek produktibitateari eragingo badio.

Honi buruz arituko naiz gutxi gora behera, zikloez, psikologiak eta feminismoaz. Bitartean Mercedes Sosaren abesti eder hau entzuterat gonbidatzen zaituztet.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

## Dispertsioff, azken ostiralaren aurretik

Euskal preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko elkarretaratzea deitu du hilero moduan Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak azaroaren 30erako 20:00etan Mikel Laboa plazan. Aurretik, astebururako Orion deitu den 4. Dispertsioff ekimenarekin bat egin dute deitzaileek. Gogoan izan, Olatz Lasagabaster eta Xua alabare-

kin batera, Picassent espetxean urrundua duten Patxi Uranga presoari oriotarra dela.

**Azaroaren 25era arte:** "Motxila etorkizunetz bete" erakusketa kultur etxean.

**Azaroak 23, ostirala** 19:00 Xabier Sukia Etxeberriak gidaturiko mahai ingurua kul-

tur etxean: Espetxean ama izandako preso ohia + bokatua + "Motxiladun" gaztea.

**Azaroak 24, larunbata** 11:30 Txan magoa plazan. 14:00 Bertso bazkaria Gaztetxean, Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. Herri bazkaritarako txartelak

salgai Hatoz eta Gabonen. Bertso bazkarikoak 20 eurotan. Bertso bazkaritarako eta kontzertuetarako: 25 euro. 22:30 Sara Zozaya, Giranice, Mice, Rukula musika taldeak Gaztetxean. Djak goizaldera arte: Goiko, Elektropeña, Aratz, Illarras, Arizonako Billy. Sarrera: 8 euro.

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Udal aurrekontuen inguruko azken aurkezpenak

**2**019rako udal aurrekontuak aurkeztu eta ekarpenak biltzen ari da Usurbilgo Udala aste hasieratik auzoz auzo. Azken saioak ostegun honetan (azaroak 22). 19:00etan hasita, Kalezarko Haur Eskolan eta Zubietako Kaxkapen aurkeztuko du udal gobernu taldeak landutako zirriborro proposamena.

Udal taldeek ere ekarpenak egiteko 10 eguneko tartea dute. Gero, hilaren 28ko udal ordezkariak bilduko dituen Ogasun Batzordean aztertuko dituzte. Ekarpenekin osatuko



Udal gobernuak ostegun honetan aurkeztuko du udal aurrekontu proposamena Kalezarren eta Zubietan.

duen urte berrirako aurrekontu proposamena abenduaren

20an egingo den udalbatzaren ezohiko osoko bilkurara era-

man asmo du udal gobernu taldeak, hasieraz onartzeko.

## Ika-mika

### Pentsioen sistema publikoaren alde

**1**.080 euroko Gutxieneko Pentsio Duinaren aldeko borroka dela eta komunikabideen aldetik erasoaldi izugarria ari gara jasaten eta baita 1200 euroko LGSren kontra ere. PSOE-Podemosen proposamena den LGSko 900 euro ere gehiegi iruditzen zaio patronalari eta IBEX 35-ekoen ekonomientzat ere. Batere beldurrik gabe zabaltzen dituzte gezurrak eta asmakeriak. Kontrako hainbeste indar egiten dutenean arrazoia gure alde dagoen seinale.

Erasoa hemen Euskadin ere badaukagu. PNVko politikari batzuek (Rementeria jaunak eta Erkoreka jaunak) proposamen bat egiten digute pentsioen osagarri bezala Bo-

rondatezko Gizarte Prebisioko Entitateekin kontratatzen. Biek nahi dutena da eztabaidan sartu gabe pentsioen sistema publikoa haustea, eta bankuekin konpontzeko esaten digute beren benefiziorako kapitalizazio sistema aukeratu eta erabiliz.

Pentsio pribatuen planen atzean botere finantzarioa eta aseguru etxe handiak daude, aseguru pribatuak kontratatuz gure diruarekin inbertsioak egiteko. Baina azpimarratu beharra dago jende gehienak ez daukala dirua aurrezteko ahalmenik eta, beraz, aukera honen gutxi batzuentzat balioko luke.

Uste faltsu bat sortu nahi digute esanez, pentsioen sistema

publikoa ezin dela mantendu, pentsiodunen kopurua hazi eta bizi-esperantza ere areagotu egin delako. Argi eta garbi esan behar dugu gure pentsioak ez direla bigarren mailako eskubideak, gure pentsioen lehentasuna gizarteko beste edozein diru-sarreraren mailakoa dela, esan nahi da, enpresari, bankari, politikari edota funtzionarioen mailako eskubideak badirela.

Gogor arbuatu nahi dugu pentsio publiko eta duinak bermatuko lituzkeen sistema publiko bat defendatu ordez, kapitalizazio sistema bat sustatzea eta aldi berean sistema publikoa ahultzea.

Pentsioen finantziazioa ezin da kotizazioen menpe utzi.

Superabita egon denean ez da planteatu pentsioak igotzea. Baina defizita dagoenean pentsioak murriztea planteatzen da, esanez pentsioen sistema porrot eginda dagoela. Pentsioen gastua handitu egin behar da, politika fiskala eraberrituz eta iruzur fiskala pertsegituz.

Zor zaiguna eman diezaguten, gehiegikeria gehiago egin ez dezaten, pentsioen sistema publiko lortzeko eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan 1080 euroko gutxieneko pentsioa sartu dezaten, abenduaren 15ean kaleak jendez bete behar ditugu, lau hiriburuetan.

**Pentsionistak Aurrera**

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

**Parti**  
Patri 2019  
latetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Usurbildarren eskuzabaltasuna, Greziara bidean

Elkartasunak ez du mugarik. Ondoko argazkia duzue horren erakusle. Zaporeak proiektutik Greziako errefuxiatuak laguntzeko Euskal Herri mailan abiatutako neguko arropa bilketa kanpaina solidarioa Usurbila heldu zen joan den astean, herritar talde baten eskutik. Azaroaren 15ean ate joka ditugun hilabete hotzetarako arropa biltzen aritu ziren Mikel Laboa plazan. Eta ikusi, furgoneta berehala bete zuten usurbildarrek utzitako arropaz, usurbildarren elkartasunez.

## Bidalketa gastuei aurre egiteko deialdia

Usurbilen jasotakoa, Euskal Herriko gainerako txokoetan bildutakoarekin batera, neguko arropa behar larrian diren Greziako Lesbos eta Chios uharteetako errefuxiatuei helaraziko zaie, palet ezberdinetan. Bakoitzak 150 euroko gastua eragingo du. Gastuei aurre egiteko laguntza eskatu dute, bestela, "ez du ezertarako balio arropa biltzeak, ezin badugu garaiz bidali".



Zaporeak ekimeneko kideak arropa batzen aritu dira. Usurbilen, azaroaren 15ean aritu ziren neguko arropa biltzen.

### BATUTAKO MATERIALA

**"Arropa behar larrian diren Greziako Lesbos eta Chios uharteetako errefuxiatuei helaraziko zaie"**

Diru ekarpenak egitera animatzen dute, Laboral Kutxako

ondoko kontu zenbakian diru ordainketak eginez: ES18 3035 0103 84 1030037127.

### "Mila esker"

Ekimena antolatu zuen usurbildar taldeak, usurbildarren eskuzabaltasuna eskertu nahi du lerroon bidez. "Mila esker Grezian dauden errefuxiantzat arropa edota diru ekarpena

egiteagatik. 378,50 euro bildu genituen (Zaporeak-eko kontu korrontean sartutako diru kopurua kontuan izan gabe). Bertan ginen taldetxoarentzat hunkigarria izan zen zuen ekarpen eta eskuzabaltasuna. Horrelako injustizien aurrean bat egin behar delako ez bairik gabe. Inor ez da ilegala!", adierazi dute.

## Juanito Orella: "Jendea kalean lotan, zaborretatik jaten..."

Greziako errefuxiatuentzako arropa biltzen ari ziren Mikel Laboa plazara hurbildu zen Juanito Orella. Ekimenotan buru belarri denbora darma. Iraila amaieran izan zen Greziako hiriburu Atenasen, hemen bildutako laguntza garraiatu zuen harantz. Denetarik; arropa, gurpildun aulkiak, elikagaiak, paketeak...

Eginiko bidaia luzearen helmugara iritsitakoan aurkitutako panorama latzaren berri eman dio NOAUA!ri Orellak. Baldintza kaxkarretan, eraikin batean bizi ziren 100 bat haur eta 60 bat emakume laguntzen aritu ziren. Besteak

beste iturgintza-lanak egiten aritu zen Juanito. "Ume haiek han ikusita, zerua gainean erortzen zitzaidan", azaldu dio NOAUA!ri.

Munduko txoko ezberdinetatik ezinbestean ihes egindako hainbat herritar daude egun Grezian. "Denbora asko darimate han", azaldu digu Juanitok, "ez aurrera, ez atzera", bere ikuspuntutik luzerako gainera. "Jendea kalean lotan, zaborretatik jaten... Hura penagarria da".

Alde nabaria dagoela dio, ez dela gauza bera hango berri kontatzea, hango errealitatea gu bizi garen munduko txoko

honetatik ikustea edo bertatik bertara bizitzea. "Jendeak ere hara joan behar luke zer dagoen ikustera", dio Orellak. Handik itzulita berriz hara joateko beharra sortzen dela dio, "ahal den bitartean joango gara".

### "Erantzun izugarria ematen ari da jendea"

Bizilekua duen Oriotik ere laguntzen segi asmo du, azken urteotan egin duen bezala. Iraila amaierako Greziako bidaiaren aurretik, aurrez Calaisera bidaiatu zuen arropa ematera, Serbian ere izan zen, Atenasen janaria ematen...

Zaporeak egitasmotik Euskal Herri mailan azken egunotan bideratu duten neguko arropa biltzeko kanpainarekin ere bat egin du, eta Orion ere bilketa lanetan jardun du. Usurbilgoan ere parte hartu zuen. "Neguko arropa eskatu dute, larrialdi egoeran direlako. Erantzun izugarria ematen ari da jendea", nabarmendu dio Orellak NOAUA! aldizkariari.

Etorkizunean halako ekimenen beharra izango dela ikusten du, Greziako eta beste hainbat lekuetako errealitateok ere luzaroan bizirik segiko dutela argi baitu.

# Ekintzaileei zuzenduriko udal diru-laguntza deialdien ebazpenak

Hutsik dauden lokal komertzialak biziberritzeko edota Kabiene Elkartearen elkarlan gunean urtebeteko egonaldia egiteko, ekintzaileei zuzenduriko bi udal diru-laguntza deituak zituen Usurbilgo Udalak. Deialdi batera zein bestera aurkezteko irailaren 30era arteko epea zuten interesdunek.

Eskaerak aztertu ostean, aurkezturiko eskabideen gaineko behin behineko ebazpena kaleratu du orain Usurbilgo Udalak. Kabiene Elkartearen Elkarlangunean urtebetez lan egiteko Hasiz Hazi beka deialdira hiru proiektu aurkeztu zituzten beste hainbeste usurbildarrek. Psikologia perinatalari buruzko Karena proiektua Aroa Etxeburua Ugartemendiak; "Mundu ttiki bat" barne diseinuari lotutakoa Maitane Zuriarrain Urdanpilletak eta finantza eredu berri baten aholkularitzaren inguruko "Kriptotxanponak" proiektua Aitor Yarza Maizek. Hiru lagun aurkeztu ziren deialdira, bai-



Eskaerak aztertu ostean, aurkezturiko eskabideen gaineko behin behineko ebazpena kaleratu du orain Usurbilgo Udalak. Argazkia: Kabiene.

## EGONALDIA KABIENEN

**"Hiru lagun aurkeztu ziren deialdira baina bi ekintzaileen egitasmoen garapena diruz lagunduko du Udalak; Aroa Etxeburua eta Maitane Zuriarrainen egitasmoak"**

na bi ekintzaileen egitasmoen garapena diruz lagunduko du Udalak; Etxeburua eta Zuri-

rrainen egitasmoak.

Lokal komertzial hutsak biziberritzeko diru-laguntza deialdira berriz, bi eskaera aurkeztu dira. "Lehenengo urtetik datozen bi eskatzaileak bigarren urterako eskaera egin dute", dio Udalaren behin behineko ebazpenak. Batetik, Zubiaurrenea kalea 6ko egoitza berria laster martxan izango duten Tapuntu kooperatibakoek eta Osinalde industrialdean, Elhuyar gainean bi urtez zabalik daraman Kabiene Elkarlan Guneak.

Aipatu moduan ebazpenok

behin behinekoak dira. Udalak behin betiko ebazpenak plazaratu aurretik, azaroaren 16az geroztik alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea zabalik dago jada.

Ebazpenon gaineko informazio gehiago, hemen: Azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

## Erdiondoko taldea martxan

Karena, psikologia perinatalaren proiektuaren testuinguruan, erdiondoko taldea osatu eta martxan jarri du Aroa Etxeburua herritarrak. Erdiondoan dauden emakumeei zuzendua dago. Helburua, garai horretan diren emakumeak elkartu, sarea osatu, esperientziak elkarbanatu eta lanketa egitea litzateke. Asteazken honetatik aurrera, astero bilduko dira 10:00-12:00 artean, bake epaitegi atzeko lokalean.

## Informazio gehiagorako:

karena.eus  
info@karena.eus  
634 453 333

## Karrozeria eta pintura ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute

Buruntzaldeko Udalek Lanbideren diru-laguntzarekin karrozeria eta pinturako prestakuntzak eskainiko ditu 2018-2019 ikasturtean. Lehen eta bigarren mailako profesionaltasun ziurtagiriak izango dira: "Ibilgailuen karrozeria mantentzeko eragiketa osagarriak" lehen mailakoa eta "Ibilgailuen pintura" bigarren mailakoa.

Prestakuntzak Andoainen burutuko dira. 270 orduko iraupena izango du lehen mailakoak eta 460koa bigarrenekoak. Bi hauei 40 orduko praktikak gehituko zaizkie ziurtagiria lortu ahal izateko. Lehen mailako prestakuntza 2018ko abenduan hasiko da eta 2019ko martxora arte iraungo du. Bigarren mailakoa berriz 2019ko apirilean hasi

eta irailan amaituko da.

Prestakuntza egokia lortzen duten ikasleak aterako dira lan mundura. Honekin batera, Buruntzaldeko Udalek ikasle hauen kontrataziorako diru-laguntzak eskainiko dizkiete enpresei.

## 40 orduko praktikak

Prestakuntzaz gain, 40 orduko praktikak burutu beharko dira.

Izen ematea Lanbideko webgunean egin beharko da. Baita Lanbideko bulegoetan ere.

## Informazio gehiago:

Email edo telefonoz jar daiteke kontaktuan hurrengo telefono zenbaki edo posta elektronikoen bidez:

Tel.: 943 30 42 21

Email: langai@andoain.eus

## Pentsio duinen alde mobilizatzeko elkarretaratzea



Urriaren egin zuten bezalaxe, azaroko azken ostegunean batuko dira Mikel Laboa plazan, "Pentsio duinak" aldarriean.

**P**entsio duinak defendatzen segitzeko hitzordua finkatu dute azaroko azken ostegunerako. Bigarren

hilabetez jarraian, elkarretaratzea deitu dute Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkar-tea eta Aginagako Arrate jubi-

latu elkarrekin urriaren 29rako arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazan, "pentsio duinak" aldarriean.

### Kantuan eta dantzan gorazarre San Martini

Txerria omenduz ospatu zuten azaroaren 11ko San Martin Eguna Udarregi Ikastolako HH eta LH-ko ikasleek bi egun lehenago, hilaren 9an Agerialdeko patioan. "Gure Kurrintxo, urtero ateratzen dugun txerria paretan itsatsi dugu". Horrekin batera, "Azaroak 11" kanta abestu zuten, LH 4, 5, eta 6 mailako ikasleek txirula jotzen zuten artean. Borobiletan jarrita, dantzan amaitu zuten ekitaldia eta klaseen astea.



Azaroko 11 kanta abestu zuten LH 4, 5 eta 6. mailako ikasleek.

## Tadamun elkarteak: "Gu Palestinarekin"

**T**adamun, herrien arteko elkartasuna sustatzeko Usurbilen sortu berri den taldeak deituta, Palestinari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten azaroaren 16an. "Pairatzen dituen erasoaren aurrean gure elkartasuna adierazi nahi diogu palestinar herriari", ohartarazi dute sare sozialen bidez.

"Azaroaren 11n Israelgo Estatu Sionistak komando operazio bati ekin zion. \*Nour Baraka\* Hamas-eko buruzagi militarra bahitu asmoz. Baina bai bera eta berarekin zeuden militanteek gogor eutsi zioten eta azkenean erahil egin zituzten. Palestinarrak komando burua akabatu zuten eta beste bat larriki zauritu. Ondoren Israel Gaza bonbardatzen hasi zen. Bitartean Gazako Faktzio guztiak bat eginik aurre egiteko intentzioa azaldu



Palestinari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten azaroaren 16an Mikel Laboa plazan.

dute. Guk hemendik gure elkartasuna adierazi nahi diogu Palestinako herriari!"

Internazionalismoaren eremuan herrian dagoen hutsunea bete asmoz, sorteri guztietako usurbildarren elkargune eta herrien arteko elkartasuna sustatzeko sortu dute Tadamun

Usurbilen. Taldea Twitter bidez jarrai dezakezue, @tadamun\_herriak helbidean.

### Azaroren 30ean, 'Cubanas, mujeres en Revolucion' dokumentala Sutegin

Tadamun elkarteak dokumental baten proiektzioa iragarri

du. Maria Torrellasek zuzenduriko "Cubanas, Mujeres en Revolucion" ikusentzunezkoa eskainiko dute azaroaren 30ean ostirala, gaueko 22:15ean Sutegin. Kuban grabatua, Iraultza garaiko zein gaurko emakumeen testigantzekin osatuta dago.



# Usurbilgo denda txikietan erosiz, gabonetako atrakzio parke erraldoirako sarrera doan

**T**xikitasuna ez da inoiz erronka handiei heltzeko oztopo. Ongi dakite hori Usurbilgo dendari txikiek. Bidean datozen gabonei begira, inoiz eskuartean izan duten ekimenik handiena prestatzen dabilta; Usurbilgo denda txiki atrakzio parke erraldoia!

Urteko azken asteburua, abenduaren 29a eta 30a Usurbilgo ostalaritza eta komertzio-gunea, jolastoki handian bilakatuko digu Hurbilago Elkarteak; frontoia, Dema, Askatasuna eta Mikel Laboa plazak. “Sekulako tramankuluak” iragarri dituzte, “jolas parke benetan erraldoia”. Airera jaurtiko duen anezka (“lantzadera”), jauzika aritzeko eremua, zine mugikorra, rokodromoa eta tirolina, bizikleta gainean jira eta buelta aritzeko “lupine bike”, herri kirolen puzgarria, bat formulako kabinak, dantza pista, jumping jolasa edota xbox bideo jolasak.

## Abenduaren 29an eta 30an, jolastoki handi bat herrian

Aipatu moduan, joko guztiotaz gozatzeko bi egun finkatu dituzte, abenduaren 29a eta 30a. Egun bakoitzerako sarrera 15



Abenduaren 29an eta 30an, jolas parke bihurtuko dira frontoia, Dema, Askatasuna eta Mikel Laboa plazak. “Sekulako tramankuluak” iragarri dituzte Hurbilagokoeak, “jolas parke benetan erraldoia”.

## HURBILAGO

**Helburua argi da: “kale giroa suspertu, kale giroa biziagotu, eta bide batez, orain hasi eta abendu amaierara arte, jendea herriko denda txikietan erosketak egitera animatzea”**

eurotan eskuratu ahal izango da. Baina adi, baita doan ere!

Erraz gainera. Abenduaren 28ra arte Hurbilago Elkarteak kide diren saltokietan egiten dituzuen 20 eurotik gorako erosketen truke, puntu bat jasoko duzue. 10 puntu batuz gero, puntuak Hurbilagoko saltokiren batera trukatzera joan eta eskumuturrekoa eskuratuko duzue. Eskumuturreko honekin, egun batez, egun osoz, atrakzio parkean doan ibiltzeko aukera izango da.

## Aisialdiaren aldeko apostua

Ekimen honekin, asko jai egun edo opor giro betean izango diren egunotarako komertzio eta ostalaritza gunea aisialdi eremuan bilakatu nahi du Hurbilagok. Kasu honetan, jolastoki erraldoian. Eta horrekin, “kale giroa suspertu, kale giroa biziagotu, eta bide batez, orain hasi eta abendu amaierara arte, jendea herriko denda txikietan erosketak egitera animatzea”.

## Elikaduraren inguruko hitzaldiak

Haur eta gaztetxoaren inguruko elikaduraz bi saio antolatu ditu Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak datorren asterako. Alazne Agirrezabalaga dietista-nutrizionistak bideratuko ditu saioak:

### Azaroak 27, asteartea:

17:00 Elikaduraren inguruko zalantzak argitzeko saioa,

HH2tik LH4ra haurren gurasoentzat.

### Azaroak 28, asteazkena:

17:00 “Gazteen elikadura gurasoen esku egoteari uzten dion garaian, zer egin dezakegu euren etorkizunerako elikadura babesteko?”. LH 5,6 eta DBH-ko ikasleen gurasoei zuzendua.



Alazne Agirrezabalagak eskainiko ditu hitzaldiak.

## “Gertrudisen lagunak”

### antzezlanaz Gaztelekuan

Gaztelekuak eta Sutegi udal liburutegiak “Gertrudisen lagunak” antzezlanaz antolatu dute azaroaren 26an, 18:00etan Gaztelekuan. “Gertrude Stein, XX. mendeko artisten mezenasaren ikuspegitik, artearen historia irauli zuten pertsonaiak hautatu eta haien bizitza era ezberdin eta dibertigarriago batean ezagutzeko aukera eskaintzen digu: Frida Kahlo, Jorge Oteiza eta Henry Matisse”.

## “Betaurreko moreak jantzita aterako gara, baina argi geratu dadila gizonentzat ere badela ikuskizuna”

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena gerra emateko gogoz hurbilduko dira larunbat honetan Sutegira. Euskara eta generoari buruzko hainbat kontu aletuko dituzte, beti ere, umorezko tonu batean. Idoia Torregarai ikuskizunari buruzko xehetasun batzuk aurreratu dizkigu.

**NOAUA! Monologoak, elkarrizketa modukoak, antzezpenak... Larunbatean Sutegira hurbiltzen denak zer topatuko du zehazki?**

**Idoia Torregarai.** Oholtzaren gainean Mirari eta biok egongo gara, euskarari buruz eta gure (emakume) egunerokotasunari buruz ordu bete pasatxo hitz egiten, *club de la comedia* baten antzera, baina kontakizun bat osatuz. Gu ez gara antzezleak, umoregileak baizik. Gertatzen zaigun hori barre egiteko kodean jartzen dugu, barre eginarazi eta buruari buelta batzuk emateko asmoz. Hiru ardatzetan oinarritzen da “Bakean dagoena bakean utzi”: umorea, generoa eta euskara. Etorri beraz barre egiteko gogoz!

**Betaurreko moreak jantzita igoko zarete oholta gainera.**



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak ‘Bakean dagoena bakean utzi!’ ikuskizuna eskainiko dute larunbatean, 19:00etatik aurrera Sutegin. Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak antolatu du saioa. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

### IDOIA TORREGARAI

**“Umorea kritika egiteko eta gauzak iraultzeko oso tresna eraginkorra da, eta hori baliatu nahi dugu barrearen bidez hausnarketa sustatzeko ere”**

**Bakean dagoena bakean uztea eskatzen duzue, baina zuek gerra emateko gogoz zabilzate, ezta?**

Hori da, dagoeneko gure izenburua gezurra da, kontrakoa bilatzen dugulako saioarekin.

Gauza batzuk ez badituzu asintzen ez dira aldatzen, eta horixe da lortu nahi duguna. Emakumeok umorea egin dezakegula frogatu nahi dugu alde batetik, oraindik ere gizonetzkoen mundua baita hau eta aurreiritzi asko baitago. Beste alde batetik, umorearen bidez gai konkretu batzuek hitz egin nahi dugu, izan ere, “emakumeen gauzak” izateagatik askotan ezkutuan egoten baitira (gorputzak, amatasuna, parranda, hilekoa,...). Umorea kritika egiteko eta gauzak

iraultzeko oso tresna eraginkorra da, eta hori baliatu nahi dugu barrearen bidez hausnarketa sustatzeko ere. Betaurreko moreak jantzita aterako gara, baina argi geratu dadila gizonentzat ere badela ikuskizuna. Hain zuzen ere gizonetzkoak etortzea ere bada gure helburua, “gure gauzekin” ere ondo pasa dezaketela erakutsi nahi dugulako. Azkenik, hori guztia euskaraz eta euskararekin jolastuz egingo dugu, guretzat hori baita gure bizitzeko eta umorea egiteko hizkuntza.

## “Ikusleen erantzuna oso ona izaten ari da”

**NOAUA! Lehen saioa Usurbilen eskaini zenuten. Hasi zinetetik hona, asko aldatu al da ikuskizuna?**

**Idoia Torregarai.** Bai, iazko euskararen egunean igo ginen lehenbiziko aldiz oholtzara eta euskarari buruzko saioa egin genuen osoki. Esperientzia izugarri gustatu zitzaigun eta aspaldidanik buruan geneukan proiektua diseinatzeko hasi ginen, euskaraz gain

genero ikuspegia gehituz. Behin hori eginda, Lanku kultur zerbitzuekin harremanetan jarri ginen eta ordutik beraien bidez ari gara Euskal Herri osoan saioak egiten. Izugarri eskertzen diegu gudan izan duten konfiantza. Dagoeneko 29 saio egin ditugu eta egia esan harrera zoragarria izaten ari da. Iaz Usurbilen egon zirenek saio desberdina topatuko dute ia bere osota-

sunean, euskararekin egiten ditugun tartetxo batzuk kenduta. Hauek eta iaz etorri ez zirenek aukera dute beraz ondo pasa eta barre egiteko!

**Geroztik emanaldi asko eman dituzue. Prentsan, irratian eta telebistan agertu zarete. Horrelako oihartzunik espero al zenuten?**

Opari zoragarria izaten ari da Mirari eta biontzat. Aspaldi-

danik elkarrekin egin nahi genuen proiektua zen bakarrizketena eta orain egi bihurtu dela ikustea sinesgaitza ere egiten zaigu batzuetan. Jendea eta medioen interesa piztu du eta guretzat hori ederra da, umorea jendaurrean egiteko ametsa betetzeaz gain, ikusleen erantzuna oso ona izaten ari delako. Eta guztia- ren gainetik, zein ondo pasatzen ari garen biok!

# Mobilizazioa eta ekitaldiak, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira

**E**makumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean mobilizatza deitu du Usurbilgo emakume talde batek. Igande eguerdirako elkarretaratzea deitu dute eta arratsalderako film proiektzioa Sutegin. Azaroaren 25eko aipatu egunaren testuinguru berean, bezperan, “Bakean dagoena bakean utzi!” antzezlanaren antolatuta.

## Azaroak 24, larunbata

■ 19:00 “Bakean dagoena



Elkarretaratzea deitu dute igande honetarako. 12:30ean frontoian.

bakean utzi!” antzezlanaren antolatuta, Sutegiko auditorioan.

■ Antzezleak: Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena.

■ Sarrera doan.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala, Parekidetasun Saila.

## Azaroak 25, igandea

Emakumeon Aurkako Indarkeria-

ren Nazioarteko Eguna “(in)justizien ginetik, saretze feminista!”

■ 12:30 Kontzentrazioa frontoian.

■ 18:00 “Pago justo” film proiektzioa Sutegin.

■ 1968an Dagenhameko (Londres) Ford lantegiko ia 200 emakume langileek, soldata parekideak aldarrikatzeko greba antolatu zuten. Benetako gertaera hauetan oinarritua dago filma. Greba honi esker, parlamentu britainiarrak soldata parekideen aldeko legea onartu zuen 1970ean.

■ Antolatzailea: Usurbilgo emakume talde bat.

# Lehen familia ezkutaketa topaketa egingo da igandean

**Z**irimara eskola-kirola egitasmoko hezitzaileek lehen familia ezkutaketa topaketa antolatu dute, igande honetan (azaroak 25) ospatuko den Erle Egunerako. “Topaketa honetan familiako edonork parte har dezake, familia plana da”, ohartarazi dute.

Ezkutaketan taldeka jardungo dute. Honenbestez, taldeko kideek batera ibili beharko dute, elkarrekin ezkutatu. “Taldea bateko gutxieneko partaide kopurua, heldu bat eta haur bat izango dira. Hortik aurrera, edozein konbinazio onartuko da: 2 heldu eta haur bat, heldu bat eta 3 haur, 2 heldu eta 2 haur, 5 heldu eta 8 haur...”

Ezkutatze eremua Kaxkora mugatuko da. Kale Nagusia, Irutasuna kalea, San inazio eta Zubiaurrenea kaleek osatzen duten lauki formako inguruetik ezingo da atera. “Kalean (aire librean) ezkutatu beharko da”, ez inongo leku estalietan. Ezkutaketan aritzeko dinamika honakoa izango da. “Hiru hezitzaileko taldeak 3 minutu itzarongo du frontoian eta denbora tarte hori pasatzean



“Topaketa honetan familiako edonork parte har dezake, familia plana da”, ohartarazi dutenez.

partaide-taldeak bilatzen hasiko da. Talde bat aurkitzen dutenean, talde hori frontoira gerturatuko da eta bertan dauden gainerako hezitzaileek aurpegian bi pintura-markatxo egingo dizkiete, “bilatzaile” bihurtuz. Jolasa talde guztiak aurkitzean bukatuko da, edo bestela, jolasa hasi eta ordu erdira. “Anima zaitezte eta etorri

guztiok ezkutaketan jolastera!”

## Familia ezkutaketa Lehen Topaketa

Azaroak 25, igandea

■ 11:30 Frontoian elkartu. Ezkutaketa jolasaren azalpena.

■ 12:00 Lehen ezkutaketa saioa (partaideek 12:30ean

frontoira agertu beharko dute).

■ 12:30 Bigarren ezkutaketa saioa (partaideek 13:00ean frontoira agertu beharko dute).

■ 13:10 aldera, parte hartzaile guztien familia argazkia.

■ Antolatzailea: Zirimara eskola-kiroleko proiektuko hezitzaileak.



★ARGIAren alde

## OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 15, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak:

Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro

(12 hilabete arteko haurrak doan)

Lan  
berriaren  
aurkezpen  
emaldia

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45

azoka@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak  
Usurbilgo Taldea

ARGIA

# San Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



Noaua!k baserritar guztiak  
gonbidatu nahi ditu

Herritarren sagardoa dastatzeko eta  
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.  
Aurten lehiaketa berritua izango dugu.



Abenduaren  
**igande** goizez **16an**



# 1.100 herritarretik gora, Euskaraldian aritzeko prest

Azaroa hasieran 600eko muga gainditu zen, handik egun oso gutxira 700 izen ematera heldu ginen Usurbilen, eta astebeteko epean, 1.125 izatera igaro gara! Euskaraldiak 1.100 bidelagun baino gehiago bildu ditu udalerrri honetan! Milatik gora Ahobizi eta Belarriprest murgilduko dira ostiral honetan (azaroak 23) euskararen erabilera areagotu eta hizkuntza ohiturez hausnartu eta aldatzea eragin nahi duen ekimenean.

Euskaraldian parte hartzeko bi tresna baliatu. Jada herritar askok egin duten moduan, zuen sare sozialen profileko argazkia baliatu Ahobizi edo Belarriprest izango zareten adierazteko. Horrekin batera, ez ahaztu txapa eskuratzea! Potxoenean edo NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan jaso ahalko duzue, ostirala baino lehen. Eta txaparekin batera, kontuan hartzeko moduko gomendio sorta biltzen duen eskuorria.

## Ariketa ondo egiteko, auzolanean

Ehunka lagunek jo zuten azaroaren 16an frontoian antolaturiko Txipli Txapa Pum ekimenera. Goizean zehar Potxoenean eta NOAUA! K.E.-



Ehunka lagunek jo zuten azaroaren 16an frontoian antolaturiko Txipli Txapa Pum ekimenera.

### TXAPAK

**“Ez ahaztu txapa eskuratzea! Potxoenean edo NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan jaso ahalko duzue, ostirala baino lehen. Eta txaparekin batera, kontuan hartzeko moduko gomendio sorta”**

ren egoitzan egin bezala, arratsaldean azken asteotan izen emate kopuruan izandako gorakada nabarmenaren isla izan zen pilotalekua. Ehunka lagun hurbildu ziren Euskaraldirako

izena eman, izen ematea egoki egin zutela egiaztatu, zalan-tzak argitu, informazioa jaso, eta azkenik, Ahobizi edo Belarriprest txapa eta eskuorria eskuratzea. Urrats guztiok emateko zirkuitu modukoa antolatu zuen Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herritar taldeak.

Aipatzekoa da, prozesu hau guztia egiteko herritarrek herritarrak izan zituztela bidelagun, bolondres sareari esker bideratu ahal izan baitzen, ostiral honetan abiatuko den Euskaraldirako prestaketa saioa. Tartean, aipatzekoa, azken asteotan

egin bezala, formazioa jaso duten herritarrek formatzaile gisa eskaini zuten laguntza.

Ahalegin guztia helburu nagusi batera bideratu da; datozen 11 egunotako ariketa ahalik eta ondoen egitera.

## Ikerketan parte hartu

Ez ahaztu, Euskaraldiko 11 egunetan egingo dugun ariketa kolektiboa aztertuko du Soziolinguistika Klusterrak. Euskaraldiak herritarren hizkuntza-ohituretan izango duen eragina hain zuzen, bai Euskal Herri mailan, herrialdeka, eta Udalaren eskariz, Usurbilen. Hiru une ezberdin baliatuko dituzte azterlan honetarako. Euskaraldia hasi aurreko tarte hau (azaroaren 23ra artekoa), Euskaraldia amaitu osteko hamabostaldia eta Euskaraldirako hiru hilabete beteko diren unea, martxoan aiegia. Hiru uneotan, Euskaraldian izena emana dugun herritar guztiok emailaz galdetegi bana betetzeko gonbita jasoko dugu. Galdetegi hau betetzea ezinbestekoa da, Euskaraldiak izan duen eragina ahalik eta modu erreal eta zehatzenean neurtu ahal izateko. Adi beraz, lehen galdetegia egunotan jasoko zenuten. Ostiral hau, azaroaren 23a baino lehen osatu behar da.

## Euskara ez da ezagutu adina erabiltzen

Euskaraldia, Soziolinguistika Klusterrak 2016. urtean herri honetan bertan eginiko euskararen kale erabileraren neurketaren ostean dator. Azterketa hark argi utzi zuen, euskararen kaleko erabilerak beherantz egin zuela. Euskara ez dela ezagutu adina erabiltzen.

### Usurbil

- Biztanleak: 6.003.
- Euskaldunak: %73 (4.353).

- Ia euskaldunak: %11 (668).
- Erdaldunak: %16 (982).

### Erabilera:

- %54 euskaraz.
- %45,5 gaztelaniaz.
- %0,5 beste hizkuntzetan.

### Erabileraren bilakaera:

- 2001: %54,4.
- 2006: %57.
- 2011: %61,9.
- 2016: %54.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

### Izen ematearen itxiera, azaroaren 22an

Abiatzera doa Euskaraldia. Irailean zabaldu zen izen emateko epea honenbestez ixtear da. 11 eguneko ekimen honetan parte hartzeko inskripzioa bideratzeko beraz, ostegun hau, azaroaren 22a izango duzue azken eguna:

■ Potxoenea edo NOAUA! Kultur Elkartera gerturatu eta bertan izango diren eskuorriak beteta.

■ Internet bidez, usurbil.euskaraldia.eus helbidean sartuta edo emailaz usurbil@euskaraldia.eus helbidean.

### Informazio gehiago:

usurbil@euskaraldia.eus  
usurbil.euskaraldia.eus

# Euskaraldirako aholku sorta

## Ahobizi

■ 11 egunetan euskaraz egingo diezu euskara ulertzen duten guztiei. Ezezagunei, berriz, lehen hitzak euskaraz egingo dizkiezu eta euskara ulertzen badute, hurrengoak ere bai.

■ Ariketa batean parte hartuko duzu, beste milaka lagunekin batera. Euskaraldiak iraungo dituen 11 egunetan, ahobizi zarela adierazteko bi tresna izango ditugu:

a-Ikurra: 11 egunetan agerian eraman txapa, eta ikurra sare sozialetan; ariketa egiten lagunduko dizu zuri eta ingurukoei.

b-Hitza: lehen hitza beti euskaraz egin.

■ Aztertu zure hizkuntza ohi-turak: norekin, zertarako eta non erabiltzen duzun euskara, eta gehiago egiteko aukerak. Lehen hitza beti euskaraz egin, eutsi eta zabaldu erabilerarako bide berriak.

■ Azaldu ingurukoei zer egingo duzun, garrantzitsua da erabaki hau hartzeko egin duzun gogoeta. Lagun, lankide, senide eta ezagunekin partekatzea lagungarria izango da.

■ Tarteka, elkarrizketa elebidunak sor daitezke solaskideak erdaraz egiten badizu. Eutsi euskarari, elkarrizketa euskarara ekartzeko aukera duzu.

■ Zure portaera ulertzen edo onartzen ez duen norbait egin



Herritarrek hasi dira Ahobizi eta Belarriprest txapak eskuratzen.

daiteke; normaltasunez jokatu, eroso sentitu zaitez. Zure aukera da, ez da bestelako azalpenik behar.

■ Euskarari eusteko lau estrategia gogoan hartu: ekin (lehen hitza zeuk eta beti euskaraz), adierazi (euskarari eutsiko diozula), egiaztatu (solaskideak ulertu dizula), esan (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).

## Belarriprest

■ 11 egunetan zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu euskal hitzun guztiei, eta zeuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Portaera horrek euskararen

ateak zabalduko dizkizu, beste hautatzeko aukera emango die eta denon artean erabilerak handituko dugu. Eskertuko duzu, eskertuko dizute.

■ Ariketa batean parte hartuko duzu, beste milaka lagunekin batera. Euskaraldiak iraungo dituen 11 egunetan, belarriprest zarela adierazteko bi tresna izango ditugu:

a-Ikurra: 11 egunetan agerian eraman txapa, eta ikurra sare sozialetan; ariketa egiten lagunduko dizu zuri eta ingurukoei.

b-Egin gonbitea, euskara jaso nahi duzula adierazi. Eta zeu ere animatu nahi bestetan eus-

karaz hitz egitera.

■ Aztertu zure hizkuntza ohi-turak: norekin, zertarako eta non erabiltzen duzun euskara, eta gehiago egiteko aukerak. Gonbidatu solaskideak euskaraz egitera eta eman aukera berriak zure euskarari.

■ Belarriprest izateak jokaera aktiboa eskatzen du: adierazi euskara jaso nahi duzula. Solaskideren bat euskaraz hasi eta erdarara pasatzen bada, eskatu euskaraz jarraitzeko eta, zeuk ere, nahi beste erabili.

■ Tarteka, elkarrizketa elebidunak sor daitezke. Egoera bakoitzean zuk ahal eta nahi duzun hizkuntza erabili, baina eskatu euskaldunei zuri euskaraz egiteko.

■ Zure euskara da euskararik onena! Praktikatzea da erraztasuna lortu eta eroso sentitzeko bidea. Belarriprest zara, hitz egin euskaraz ahal eta nahi duzun guztietan.

■ Elkarrizketetan euskarari eusteko bost estrategia: ekin (bota seinalea lehen hitza euskaraz eginda), adierazi (euskara ulertzen duzula, jaso nahi duzula), egiaztatu (solaskidearekin elkar ulertzen ari zaretela), eskatu (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko, baina euskaraz), gonbidatu (solaskideak euskaraz jarraitzera, hizkuntza ez aldatzera).

## Aholku orokorrak Ahobizi eta Belarriprest guztientzat

■ Ez dago ezinezkorik! Ohi-turak aldatzea ez da erraza, baina posible da baldin eta solaskideak ados jartzen bagara. Aldaketa taldean egingo dugu, ez zara bakarrik egongo.

■ Ariketa honetan egoera ezberdinak topatuko dituzu: lorpenak eta arrakastak batzuetan, zailtasunak bestee-

tan. Ez etsi! Saiatzeak merezi du. Ahobizi bazara prestatu zeure burua, egoera horietan euskarari eutsiz, eroso sentitzeko. Belarriprest bazara helburua lortu edo ez, eroso sentitzeko.

■ Ezezagunei buruzko us-teek gure hizkuntza hautua baldintzatzen dute; pentsatu nola gainditu aurreiritziak

eta eutsi erabakiari! Baietz hamaika egunetan uste baino jende gehiagorekin egin euskaraz!

■ Adostu ariketa zure ingurukoekin. Gero eta pertsona hurbilagoak izan (senideak, lagunak...) orduan eta zailago hizkuntza ohi-turak aldatzea eta inertziak gainditzea, baina aldaketak era-

gin handiagoa du. Gonbidatu gertukoak ariketan parte hartzera.

■ Baliatu gainontzeko ahobizi eta belarriprestekin izango dituzun topaketa eta elkarguneak esperientziak trukatzeko. Jaso bizipenak (arrakastak eta zailtasunak) koaderno batean eta partekatu gainontzekoekin.

# Euskaraldirako 11 urrats

**E**gunotako ekimena presatzen urte osoa darama Usurbilen osaturiko herritarren batzordeak. Hona hemen Euskaraldira bidean eman dituzten hainbat urrats:

■ 2018/01/17:

Lehen barne batzarra Udalak eta NOAA! K.E.-k deituta Potxoenean. Usurbilen Euskaraldiaren testuinguruan zer egin zitekeen aztertu zen euskalgintzako eragileekin.

■ 2018/02/07:

Euskaraldia Usurbilen antolatzeke lehen batzar irekia herritarrekin. Usurbilen ere Euskaraldia antolatzea erabaki eta talde sustatzailea osatu zuten. Aldiro prestaketa lanak bideratzeko biltzen joan dira hilabeteotan Potxoenean.

Udaberritik aurrera: lanerako tresnak eta baliabideak eskaintzeko, eta Ahobizi eta Belarriprestak prestatzeko forma-



Urte hasieran egin ziren lehen bilerak.

zio saioak jaso zituzten talde sustatzaileko kideek.

■ 2018/06/08:

Euskaraldia aurkezteko herri agerraldi jendetsua egin zen Mikel Laboa plazan.

■ 2018/07/24:

Euskaraldia udal barruan sustatzeko adierazpena onartu zuten udal taldeek, osoko bilkuran.

■ 2018/uda: Elik eta Patxik

Euskaraldirako girotze lanak hasi zituzten.

■ 2018/09/19:

Herritarrak izen ematera animatzeko “Euskaraldia: zergatik eta zertarako” solasaldia Potxoenean Olatz Altuna eta Inazio Usarralde herritarrekin.

■ 2018/09/20:

Euskaraldirako izen ematearen irekiera.

■ 2018/10-11:

Ahobizi nahiz Belarriprest guztientzako formazio tailerrak egin dira Potxoenean.

■ 2018/11/16:

“Txipli Txapa Pum”, Euskaraldirako txapa banaketa eguna frontoian.

■ 2018/11/23-2018/12/03:

Euskaraldia, 11 egun euskaraz.

## Hasiera 11 suzirirekin... artixta eta ikasleekin amaiera

**Azaroak 23, ostirala:**

**Euskaraldiaren hasiera**

■ 08:00 Euskaraldiari hasiera emateko 11 suziri.

Egunean zehar, musika plaza inguruan.

■ 17:00 Bihurri Ludotekan zinea euskaraz eta palomitak 6 urte arteko haurrentzat. Sarrera: doan.

■ 17:30 Taloak frontoian.

Ondoren, Orbeldi Dantza Taldearen emanaldia eta Errebal taldearen dantza musikatua frontoian.

■ 19:00 Andatza M.K.T.-ren Mendi Astearen baitan, “Aizkora hotsak goi mendietan” dokumentala Sutegiko auditorioan.

Oharra: Egunean zehar, txapak jasotzeko aukera egongo da.

**...artixta eta ikasleekin amaiera**

Sortzaile eta ikasleek emango diote bukaera, 11 egunez milatik gora herritarrek egingo dugun ariketa kolektiboari. Gogoan izan, abenduaren 3an amaituko da Euskaraldia, egun seinalatuan, Euskararen Nazioarteko Egunean. Astelehen horretan eta aurrez, asteburuan izango da hitzordurik Usurbilen nahiz Aginagan:

**Abenduak 1, larunbata**

■ 17:30 Antzerkia Aginagako ludotekan: “Pupu eta Lore: haizearen herrira”. “Pupu eta Lore poz-pozik daude, aitona Manolo etorri baita bisitan, bere gitarra, kantu eta jolasekin, gauza oso gutxirekin, mundua dantzan jartzeko ka-

paz da aitona Manolo: musika eta irudimen apur bat. Zer besterik behar da, ba, egunerokotasuna magiaz janzteko?”. Sarrera: doan.

Antolatzailea: Antxomolantxa.

**Abenduak 2, igandea**

■ 17:00 “Magiaren etxea”, euskarazko zinea haurrentzat Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan Sutegin salgai. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza Gazte Elkartea.

■ 18:00 Euskaraldia boro-biltzeko Usurbilgo Artixten emanaldia frontoi inguruan. Amaieran, Ahobizi eta Belarriprest guztiekin argazki erraldoia.

■ 18:00 Antzerkia Aginagan: “Ergela”. Aktoreak: Sara Co-

zar eta Joseba Apaolaza. Sarrera: 5 euro. Antolatzailea: Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartea. “Froga psikologiko batzuetara aurkeztu da protagonista, diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan”.

**Abenduak 3, astelehena: Euskararen Nazioarteko Eguna**

■ 12:00ak aldera, Udarregi Ikastolako LH eta HH-ko ikasleen kantu emanaldia frontoi inguruan. Egunean zehar, ekimen ezberdinak bideratuko dituzte ikastola barruan.

## 30 sustatzaitetik gora, Euskaraldiarekin bat

- Usurbilgo Udala.
- NOAUA! Kultur Elkarteak.
- Udarregi Ikastola.
- Etumeta AEK euskaltegia.
- Bota Punttuba Bertso Eskola.
- Usurbilgo Kantu Taldea.
- Muxurbil Antzerki Taldea.
- Usurbil Kirol Elkarteak.
- Zumarte Musika Eskola.
- Elhuyar Fundazioa.
- Pagazpe Kirol Elkarteak.
- Bihurri Ludoteka.
- Andatza Mendizaleen Kirol Taldea.
- Orbeldi Dantza Taldea.
- Usurbilgo Gure Esku Dago taldea.
- Kabienea.
- Usurbilgo EHBildu.
- Usurbilgo EAJ.
- DYA.
- Usurbilgo LAB.
- Mahaspildegi Elkarteak.
- Odol Emaileen Elkarteak.
- Usurbilgo Lanbide Eskola.
- Zubietako Herri Batzarra.
- Zubietako Pilota Elkarteak.
- Usurbil Futbol Taldea.
- Gure Pakea Elkarteak.
- Zirriborro Pintura Eskola.
- Usurbilgo Judo Taldea.
- Jexux Artze Kultur Elkarteak.
- Einean Guraso Elkarteak.
- Hitz Aho Guraso Elkarteak.
- Hurbilago Elkarteak.
- Organoaren Lagunak.
- Zubietako Jai Batzordea.
- Santuenea Elkarteak.
- Usurbilgo Gazte Mugimendua.
- Urbil merkataritza gunea.



LAB sindikatuko ordezkaririk.



Udal zinegotziak.



Elhuyarreko lan taldea.



Zumarte Musika Eskolako kideak.



Judo taldea.



Hurbilago merkataria eta ostalari elkarteak.



Udarregi ikastolako irakasleak (I).



Udarregi ikastolako irakasleak (II).



Zubietako Jai Batzordea.



Zubietako Pilota Elkarteak.





Kantu Taldea.



Zubietako Guraso Elkartea.



Udal liburutegiko kideak.



EAJ alderdiko ordezkariak.



Mahaspildegi elkarteko kideak.



Kabiene.



Hitz Aho guraso taldeko partaideak.



Usubilgo Gure Esku Dago taldea.



Gaztelekuko begiraleak.

# Ahobizi eta Belarriprestei galdezka

Zergatik parte hartu Euskaraldian? Euskaraldia beharrezkoa ote da? Ahobizi edo Belarriprest? Nola biziko ditugu datozen 11 egunok? Izena eman duten usurbildarrok dituzte erantzunak.



**Garazi Artola Balda**  
**Ahobizi**

“Euskara oso gustuko dut, euskarak bizirik segitzea nahi dut mundu honetan. Lantokian bada euskaraz jakin eta erabiltzen ez duena. Lanean eroso aritu nahi dut, euskaraz eta 11 egun horietan euskara baino ez dute entzungo nire ahotik, aitzakia baitugu. Hasieran begirada desafiataileren bat jasoko dudala uste dut, baina ia hurrengo egunetan normaltasun batean sartzen garen. Helburua bete eta mantentzea lortzen badut, luxuzkoa izango da”.



**Eneko Arregi**  
**Ahobizi**

“Euskalduna naizelako eman dut izena Euskaraldian, eta gustatuko litzaidakeelako euskaraz mintzatzea ausartzen ez den jendea edo erdaraz egiten duena euskaraz pixka bat

saiatzea. Herrian bertan eragin dezakegu, euskaraz hitz eginez eta jendeari lagundu behar bazaio laguntzen”.



**Asier Iturralde**  
**Ahobizi**

“Normalean lehen hitza euskaraz egiten saiatzen naiz, baina aurreiritziengatik edo aurrean dudanak euskaraz ez duela jakingo pentsatzeagatik, erdaraz hitz egiten dut batzuetan. Halere Euskaraldiarekin saiatuko naiz lehen hitza beti euskaraz egiten. Bereziki aisialdian. Lanean lankideak euskaldunak dira eta euskaraz egiten dugu lan. Aisialdian eta Usurbildik kanpo, Donostia-rra edo zonalde erdaldunago batera joatean zailagoa da, ahalegin gehiago eskatzen du lehen hitza euskaraz egiteak”.



**Anartz Aizpurua Berdegue**  
**Ahobizi**

“Euskaraz hitz egiten dugunok ez badugu halako ekimenean parte hartzen, ez dugu ezer lortuko. Ahobizi rola hautatzea nahiago izan dut, nire eguneroko rola delako. Bereziki lanean eragin nahi nuke. Eguneroko bizitzan

euskaraz erabiltzen dut, baina lanean kanpoko jendearekin ez dugu euskaraz erabiltzeko hainbesteko ohitura”.



**Olatz Rezola Eizagirre**  
**Ahobizi**

“Euskaraldian izena eman dut, proposamen oso polita iruditu zaidalako eta euskara egunero indartzen jarraitzeko; 11 egun hauetaz gain, urteko 365 egunetan. Lantokian eragin nahi nuke bereziki. Han hamaika egun horiek arrastoa utziko dutelakoan nago, falta handia dugu. Euskaraz erabiltzen dut bertan, baina entzun dezente erdaraz. Euskaraldia beharrezkoa? Halako ekimen bat, bi eta gehiago izango dira beharrezkoak urte osoan. Halere, ia pixkanaka gutxitzen doan ekimenon beharra, seinale ona izango da hori”.



**Aitor Zabaleta**  
**Ahobizi**

“Euskaraldia zergatik eta zertarako? Euskaldunak garelako eta gure eremu pertsonalean euskarara jotzeko. Beharrezko dinamika da Euskaraldia eta ekimen gehiago baita, dinamika nahiko potentea Euskal Herri osoan. Datozen 11 egu-

netan gehienbat Institutuan bertan eragin nahi nuke. Bertan, beste herrietako jendearekin elkartzean, haiek askotan gaztelerara jotzen dute. Sikiera dinamika honetan parte hartzeko konbentzitu ditut. Gure arteko harremana euskaraz eraiki nahiko nuke”.



**Nagore Unanue Irureta**  
**Ahobizi**

“Euskararekiko kezka bultzatu nau Euskaraldian izen ematera, Euskarari bultzadatzeko txiki bat eman beharra dagoelako. Gazteleraz gehiago entzuten da toki dezentetan eta belaunaldi berrietan ere. Eragin beharra dago. Euskaraldiak urte osorako behar luke. Nik neure buruari erronka bat jarri nahi diot, ze iruditzen zait gazteleraz hitz egiten dutenekin nire lehenengo hitza gazteleraz izaten dela. Hor txip aldaketa bat behar dudala ikusten dut, eta Euskaraldia niretzat horretarako ona izango da”.



**Virginia Herrera  
Belarriprest**

“Euskaraldia beharrezkoa da batez ere jendea euskaraz hitz egitera ohitua ez badago, edo euskaraz aritzeko beldurra edo lotsa sentitzen badu. Madrilekoa naiz. 15 urte daramatzat hemen bizitzen. Euskara euskaltegian ikasi nuen, jendea, kultura, ohiturak eta herria ezagutzeko. Hasieran gogorra zen niretzat hitz egitea, baina gerora maila batera heldu eta orain errazaga da. Nire aukera euskara erabiltzea izan da, bestela galduko nuke. Euskara erabiltzeak lagunak, jendea ezagutu eta gauzak hobeto ulertzeko aukera eman dit. Euskaraldia euskararen erabileran arreta pixka bat jarri edo deitzeko iniziatiba ona iruditzen zait”.



**Goizane Auzmendi Aizpurua  
Ahobizi**

“Beharrezko ekimena, garrantzitsua eta interesgarria

iruditzen zait Euskaraldia. Nire kasuan erronka bezala hartuko dut. Baditut inguruan euskaraz dakitenak, eta nik neronek ere euskaraz hitz egiten jakinda, ikusten dut batzuetan gazteleraz aritzen gara. Askotan gazteleraz aritze hori ohitura bilakatzen da eta ohitura horiek aldatzea zaila izaten da. Horregatik, pertsonalki erronka gisa ohitura hori aldatzen ahaleginduko naiz”.



**Salbatore Arruti Aranburu  
Ahobizi**

“Euskarak merezi duenultzada emateko eman dut izena Euskaraldian. Nire egunerokotasunean beti euskara erabiltzen dut. Horregatik ez da aldaketa handirik izango 11 egunotan. Baina behintzat bai nabaritzeko eta jendeak ikusteko errealitate hau. Eskola batean irakasle bezala ari naizen heinean, behintzat ikasleek euskaraz egin diezadatel. Bessetan egiten didate, baina orain arrazoi gehiagorekin”.



**Sonia Garcia Rodriguez  
Belarriprest**

“Betik euskaraz hitz egiten jakin izan dut. Jendeak badaki batzuetan akatsak egiten ditudala eta nirekin erdaraz hitz egitera igarotzen dira. Euskaraldian eman dut izena, jakin dezaten nirekin ere euskaraz egin dezaketela, euskara ulertzen dudala, eta nirekin euskaraz egin dezaten. Nik ere euskaraz egingo dut eta gehiago ikasiko dut”.



**Asintxio Pagola  
Ahobizi**

“Euskaraz segitzeko, eta euskara zabaltzeko eman dut izena Euskaraldian. Niretzako alderik ez da izango hamaika egunotan, beti euskaraz hitz egiten baitut”.



**Mari Berasaluze  
Ahobizi**

“Euskaraz are gehiago egiteko eman dut izena Euskaraldian. Lanean, autobuseko gidaria euskara ikasten ari da, eta berari ere saiatzen naiz euskaraz hitz egiten. 11 egunotan eremu horretan saiatuko naiz eragiten”.



**Agustina Arizti  
Ahobizi**

“Pozik asko eta gustura parte hartuko dut Euskaraldian. Odol Emaileen Elkarteko ordezkari gisa parte hartzeko gonbita luzatu ziguten eta pozik asko baietz eman genuen eta nahi zuenak pertsonalki baita. Ni gustura. Euskaraldiaren beharra bada. Erdaldun bat aurrean denean erdaraz hasten gara. Erantzunikuzuna dugu euskaldunok”.

# Zumartek jarriko dio Euskaraldiari soinu banda

Jai dute ostegun hau Zumartekoek. Azaroak 22, Santa Zezili Eguna musikariena ere bai baita. Ospakizunak jai bezperara, hilaren 21era aurreratu dituzte. Urtero moduan, eta Euskal Herri osoko musika eskolek bezala, Musikalean ekimena antolatu du Zumartek; kalejira lehenik eta segidan Sutegin kontzertua.

Euskaraldia hasi bezperatan egokitu da aurtengo edizioa. Une ezin egokiagoa, Zumartek euskararen erabilera areagotu eta hizkuntz ohituretan eragin nahi duen 11 eguneko ekimenari ekarpena egiteko. Kasu honetan, musikaz giroturiko ekarpena noski.

Uxue Alberdik Euskaraldiaren harira sortutako 12 bertsoetatik lau hautatu, musikatu eta abestekoak zituzten hilaren 21eko hitzorduan. Herrian barrera, kalejira zehar egitekoak zituzten geldidunetan batetik, eta Sutegin talde instrumentala eskaintzekoak ziren kontzertu amaieran, auditoriora bertaraturiko guztiekin batera. Aipatzekoa, koplak hauek pres-



Uxue Alberdik Euskaraldiaren harira sortutako 12 bertsoetatik lau hautatu, musikatu eta abestekoak zituzten hilaren 21eko hitzorduan.

tatzeko musika eskolan aurrez egin duten lanketa. Zumarte ere Euskaraldian murgiltzeko prest da honez gero.

## “Euskaraldia”

Egilea: Uxue Alberdi.

Asko maite dut euskera,  
Asko maite dut euskera,  
baina pasako al gera  
haren alde egotetik  
haren alde egitera?

haren alde egitera?  
Asko maite dut euskera.

Ulertu edo hitz egin,  
Ulertu edo hitz egin,  
bi poz dira, bi ahalegin ...  
beharrezkoak euskara  
gehiago erabil dedin  
gehiago erabil dedin  
Ulertu edo hitz egin.

Ahoak ta belarriak  
Ahoak ta belarriak

prest eta bizi jarriak,  
iraultzari gorputzetik  
ekiteko oinarriak  
ekiteko oinarriak  
Ahoak ta belarriak.

Ahobiziaren giltza  
Ahobiziaren giltza  
ulertzen dutenei mintza,  
ta zalantzarik bazenu:  
euskaraz lehenengo hitza  
euskaraz lehenengo hitza  
Ahobiziaren giltza.

## Txapak, neurketa eta unitate didaktiko bereziak, Udarregi Ikastolaren Euskaraldian

16 urtetik gora izan eta euskaraz ulertzeko gai direnek parte hartu ahalko duten arren, adin tarte guztietara zabalduko da Euskaraldia. Tartean, belaunaldi berriengana. Udarregi Ikastola dugu horren adibide argia. Hezitzaile, langile eta ikasleak Euskaraldian murgiltzeko prest dira jada.

Denbora daramate, astero ikastolako berriez osatuta gurasoei helarazten dieten

buletinaren baitan, Hizkuntz Proiektua lantzeko taldeak (HIZPRO) duen atalean, Euskaraldian parte hartzeko gonbita zabaltzen. Ahobizi nahiz Belarriprest txapak soinean dituztela arituko da beharrezko ikastolako lan taldea, azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Musikaz ere girotuko dituzte datozen 11 egunok. Jolasgarrian, nahiz ikastolako sartu-irteera orduetan, Euskaraldiko abestia entzungai izango da.



Musikaz ere girotuko dituzte datozen 11 egunak.

# Koldo Almandoz: “Aginaga toki ederra, ingurune berezia iruditzen zitzaidan”

**F**itxatua zuen Aginaga, eta errio ingurua. “Toki ederra, ingurune berezia iruditzen zitzaidan”. Koldo Almandoz zinegileak argi zuen hasieratik, egunero kotxez zeharkatzen zuen eremu honetan garatuko zuela bere proiektu berria; “Oreina”. Hala adierazi zuen azaroaren 17an Sutegin, NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan antolatua genuen proiektuaz.

Almandoz zuzendariarekin batera, “Oreina” pelikulako aktoreetako bat, Ramon Agirre ere gonbidatu genuen Sutegira, ikus-entzunezkoaren nondik norakoak azaldu eta kultur etxera bertaraturikoen jakinmina asetzera.

Filmaren kokaleku nagusia hasieratik argi zuen Almandozek. Aginaga, errio ingurua. Argi zuen errio inguruko paisaiak zeuden bezala erakutsi nahi zituela filmean, “filmak sinesgarria izan behar zuen”. Halere, “nire nahia itsusiagoa izatea zen”, zioen Almandozek Sutegin, “Oreinak” Oria inguruaz erakusten duena irudi politegia zela gaineratuta.

## “Oso film musikala da”

Elkarrizketa askorik ez du filmak “baina askotan esaten



Oreina filmaren proiektzio amaieran, ikusleen galderak erantzuten aritu ziren Koldo Almandoz zuzendaria eta Ramon Agirre aktorea.

## KOLDO ALMANDOZ

**Argi zuen Oria errio inguruko paisaiak zeuden bezala erakutsi nahi zituela filmean, “filmak sinesgarria izan behar zuen”**

direnak baino egiten direnak erakusten duen filma da” zuzendariaren hitzetan. Ramon Agirre ere ildo beretik mintzatu zen. “Oso film musikala da. Zaratek eta musikak hizketaren pisu berbera dute. Oso ederra da film batean hitzik gabe gauza asko esatean denean”. Filmaren ezaugarri hau aktore eta zuzendariaren arteko harreman-

naren isla izan dela gaineratu zuen Agirrek. “Gure harremana ere oso hitz gutxikoa izan da, bazen elkar ulertze bat, asko hitz egin gabe”.

## Etorbizuneko euskaldunak

Aginagan eta Santuenean ere erreparatu zuen Almandozek, “Oreina” grabatzerakoan. Paisaiak gain, filmeko istorio eta protagonistak izango zirenen gain. “Oso erreale ezberdinak daude hemen. Batetik betidanik, belaunaldiz belaunaldi hemen bizi direnak. Eta bada kanpotik bizitzera etorri den jendea. Urte batzuk daramatzate hemen, seme alabak ikastolara eramaten dituzte. Etorbizuneko euskaldunak haiek

izango dira eta film batean erakusten hasia ere garrantzitsua da. Hari horri tiraka hasi nintzen”, zioen Almandozek, “bizitzatik oso gertu zegoen filma izatea” nahi zuela gaineratuta.

## “Gidoitik ikusi duzuenara askotxo aldatu da”

Oreinaren presentzia handiagoa zuen hasieran filmak, oreinaren ehizaldi bat ere grabatu zuten eta, “baina muntaketan kendu zen”. Hori du gustuko Almandozek, film baten ekoizpena aldatzen den prozesuan zehar aldatzen doala ikustea. “Gidoitik ikusi duzuenara askotxo aldatu da”, zioen. Aktoreek ere proposamenak egitea gustuko du, “bakoitzak zerbait gehitu behar dio eta horrek filma aberasten du”.

Filmaren hiru amaiera grabatu zituzten, “azkenean geratu dena da filmaketan bertan niri burura etorri zitzaidan amaiera”.

## Munduan barrena

“Oreina” Sutegin proiektatu genuen egun berean, Alemaniako jaialdi batean ari ziren eskaintzen. Euskal Herri osoan emititu ostean, Latinoamerikako jaialdi ezberdinetara jauzi egitekoa da gainera.

# Kantuan bazkalaurretik, bertsoan bazkalostean

Kalerako giro ezinhobea egokitu zitzaion Kantu Taldekoei azaroaren 17an. Giro eguzkitsua eguerdi partean kalez kale abestuz aritzeko. Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariak bidelagun izan behar zituzten, baina ez zuten hitzordura agertzerik izan. Egunotan zendu den Aitor Sarasua bertsolariaren aldeko hita egitekoak ziren larunbat

goiz berean Itsasun (Lapurdi). Hara joan beharrean aurkitu ziren. Kantu-jiraren ostean bai, Patri jatetxean ospaturiko bazkalostean bertso saio ederra eskaini zuten. Eguraldia lagun, jatetxeo terraza ederrean. Azaroaren 17ko bertso-kantu-jira-bazkaria Kantu Taldearen, Bota Puntubaren eta NOAUA!ren artean antolatua zen.



Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariak, Patrin kantari.

# Gure kasa aritu ginen Sutegin

**E**uskal Telebistako “Gure kasa” saioko aurkezle hirukotea kultur etxean izan genuen azaroaren 14an Sutegin; Aitziber Garmendia eta Julen eta Antton Telleria.

Bigarren denboraldi betean murgilarazi dituen saioaren xehetasun ezezagunez, haien ibilbide profesionalaz eta euskaraz luze zabal aritu ziren, bizipen pertsonal anitzez jositako solasaldian. NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakari Idoia Torregarai gidatu zuen saioa parte hartzailea izan zen une oro. Gaztetxo mordoa bertaratu zen ekitaldira, haietako bat baino gehiago jakinminez eta telebista pantailatik Sutegira jauzi eginiko aurkezle ezagunak galdekatzeko gogotsu.

## “Euskaraz denetarik egin behar dugu”

Gauero aurkezten duten saioaz galdetuta ziotenez, esperimentu modukoa izan zen estreinatu berritan “Gure Kasa”. Baina jendeak gustuko zuena kontuan izanda bide bat hartu zuten, “tekla egokiekkin asmatu genuen”, azaldu zuen Julen Telleriak. Bigarren denboraldia oso ondo hasi dutela nabarmenduta, “guri tokatzen zaiguna da, gure lanean gozatzen segitzea, oso ondo pasatzen baitugu”. Ibilbide bat jorratuta, “lortu dugu gaur egun saioa



Idoia Torregarai, Julen Telleria, Aitziber Garmendia eta Antton Telleria, azaroaren 14ko solasaldian.

## ARRAKASTAREN GAKOA

**“Euskaraz bizi diren hiru lagun dira aurkezleak. ‘Gure Kasa’ saioaren arrakastaren gakoetako bat horixe izan dela aipatu zuen Antton Telleriak”**

lasai egitea”, baina irribarrea inoiz galdu gabe.

Saioaren arrakastaren gakoetz galdetu zien Idoiak hiru gonbidatuei. Gakoetako bat Aitziber Garmendiarentzat, saioa nori zuzendua dagoen. Hasieratik gaztetxoei zuzendua egon arren, denetariko gonbidatuak bildu dituzte. Eta saioaren atzean dagoen lan talde zabal aipatzen zuen. Azkenean “arrakasta denen batura izan da, puzzlea pieza guztiek

egiten jakin izan dela”.

Telebista ikusten dutenentzako eta ikusia izateko egiten dela gogorarazita, euskarak duen papera aldarrikatu zuten. “Euskaraz denetarik egin behar dugu, gustuko duguna eta ez duguna ere bai, hartara denok izango genuke aukeratzeko aukera hori”, zioen Telleriak, euskaraz denetarik egiten ez bada, denetarik ez badago, “erdaraz kontsumitzea beste erremediorik” ez genukeela izango gogorarazita.

Testuinguru honetan hartu zuten ahotan, egun hainbestetan aipatzen den telezaborraren kontzeptua. Julenek argi zuen. Deitura hori jasotzen duten telebista programa askok “guk baino askoz arrakasta gehiago dute, jende oso langile eta azkarra dagoelako. Horri

telezaborra deitzeak errespetua ematen dit”.

## Emakumea eta umorea

Euskaraz eta telebistaz aritu ziren, umorea eta emakumez baita. Emakume umoregileek egun duten espazioaz, dauden aurreiritziez eta jasotzen dutenaz. Gizonezkoek grazia gehiago dutela entzun izan dute. “Hala da, hor sartzen uzten ez badiguzue, aukera bakarra izango delako gizonezkoen umorea”, zioen Aitziberrek. Garmendiaren esanetan, “emakumezkoak gizarteak beti nahi gaitu txukun, dotore, formal, inoiz ez ganberro. Umorean gauza bera gertatzen da. Askotan deitu didate atentzioa telebistan, hitz bat edo beste esateagatik, edo modu batera edo bestera jokatzegatik”.

## “Guretzat erronka Erdaraldian parte hartzea izango litzateke”

Ate joka dugun Euskaraldiaz ere galdetu zien Idoiak, euskaraz bizi ote diren. “Bitxia egiten zait. Halako galderak egiterakoan naiz kontziente zein den benetako egoera”. Euskaraz bizi edo aritzea, beretzat aukera naturala dela zioen Aitziberrek Sutegin. “Natural ateratzen zaizun zerbait da”. Baina halako galderekin,

euskaraz bizitzekoa benetako aukera zela zioen.

Ate joka dugun Euskaraldiarekiko poztasuna agertu zuen. “Indar handia hartu du eta asko pozten naiz, espero ez nuen jendea ikusi dut bertan sartuta. Poza eman dit eta indarra. Bada hor zer landua eta jendearen erantzuna hor dago”. Beste kontu bat da bere

ikuspuntutik, “Euskaralditik kanpo zer geratzen den”, euskararekiko norbere konpromiso maila nolakoa den.

Anttonen iritziz, bidean datorrigun Euskaraldia “tentsio batzuk baretzeko oso baliagarria izango da, niri euskaraz egin edo nik euskaraz egingo dizut lasai adierazteko. Eta ia hortik aurrera hizkuntza

ohitura horiek mantentzeko aukera dagoen”.

Euskaraldiko 11 eguneko tartea Julenentzat, “egunerokoa egitea” izango da. “Guretzat erronka Erdaraldian parte hartzea izango litzateke. 11 egunez erdaraz egin beharoko bagenu, izerdi piloa bota beharoko genuke, isilik egongo ginateke”.

## “Euskaraldirako 4 aitzakia” antzezlanaren egokitu eta berriro eskainiko dute San Tomas egunean



Nahia, Xabat, Eli eta Patxi umorezko hainbat esketx eskaini zituzten pasa den ostiralean Sutegiko auditorioan.

“Baten batek dudaren bat baldin badu Euskaraldia beharrezkoa ote den edo ez, zertarako den, behar ote dugun... Etorri eta guk emango diogu Euskaraldian parte hartzeko

aitzakia”. Hitz horiekin iragarri zuten *Euskaraldirako 4 aitzakia* antzezlanaren. Eta hori bera eskaini zuten Sutegin.

Ostiralean auditoriora hurbildu zirenek gogoz egin zu-

ten barre. Oholtza gainean lau pertsonaia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi. Pertsonaia adina esketx taularatu zituzten. Lastima ez zela nahi beste jende batu.

**Abenduaren 16an, berriro**

Dena den, San Tomas egunean, beste behin igoko dira Sutegiko oholtza gainera.

■ Abenduaren 16an igandea, 19:00etan Sutegin.

## EME-ren zuzenekoak, berritzailea bezain ikusgarria

EME taldeak kontzertu ikusgarria eskaini zuen igande arratsaldean Sutegin. Amaiera biribila eman zioten aurtengo Kulturaldiari.

Maniki biluziak oholtzaren atzekaldean. Argiztapen iradokitzailea. Ezohiko proposamena gurean. Ezin zuten beste modu batean izan. EMERen eskaintza musikala ezberdina den aldetik, eszenaratzeak ere halaxe izan behar zuten. Iradokitzailea batzuetan, gordina bestetan. Berritzailea bezain ikusgarria.

Nora Izagirreraren ahotsak gidatu zuen emanaldia. Diskoko kanta denak jotzeaz gain, oraindik argitaratu gabeko batzuk ere eskaini zituzten. Amaierako bisean, Eskorbuto-ren abesti bat moldatu zuten.



Jendetza elkartu zen EME taldearen zuzeneko emanaldian. Amaiera arrakastatsua izan zuen Kulturaldiak.



### REMELLURI ARDOAK



2010. urteko  
ERRESERBAko ardoa



52 € 3 botilako kutxa



96 € 6 botilako kutxa

### SOLAGÜEN ARDOAK



Manuel Quintano txuria  
2017



54 € 6 botilako kutxa

2015. urteko  
ardo ONDUA

45 € 6 botilako kutxa



### LEZAUN ARDOAK



2017. urteko Lezaun 0,0 sulfito  
(2017ko Zilarrezko Ekoardoa - Errioxa)



28 € 6 botilako kutxa

2016. urteko  
Lezaun Gazaga  
(Nafarroako sor-markako haritz ardo onenaren saria, 2017)

40 € 6 botilako kutxa



### PEDRO LUIS KONTSERBAK



#### ZAINZURIAK

Zainzuri lodiak, 8-12 ale



38 € 6 poto



#### TOMATEA

Nekazaritza ekologikoko  
tomate frijitua

12 € 6 poto

### BRUT NATURE MAINEGRA



#### MENDABIAKO CAVA

MAHATS MOTAK:  
%50 viura, %35 parellada,  
%15 chardonnay.  
LIGETAN ONDUA:  
Hogei hilabete baino gehiago.  
ALKOHOL GRADUAK:  
Bolumenaren %12,  
gutxi gorabehera.



44 € 6 botilako kutxa

### ITURRI KONTSERBAK

#### ZAINZURIAK

Zainzuri estra lodiak, 13-16 ale

24 € 3 poto



### MAHALA SORTA



34 € Saskia

Mahala urdai azpikoa, 250g  
Mahala paleta, 250g  
Txorixo lehorra, 300g  
Behi gazta, 550g  
Sagar dultzea, 300g  
Mahala solomoa, 250g



### ALFAR OLIOA



Oliba olio  
birjina estra

75cl. %100 arbekina

43 € 6 botilako kutxa



### URDETXE

BASATXERRI BESO ONDUA  
(PALETA)

6 kilo inguruko beso ondua,  
aske hazitako txerriarekin egina,  
20 hilabeteko ontze denboratik gorakoa.

65 € Paleta



## Osatu zure saskia!

Eskariak egiteko, jarri gurekin harremanetan  
**azaroaren 30a baino lehen.**

Abenduaren erdialdean banatuko dira.

(0034) 943-30 43 45 • [Berria.eus/berrialaguna/denda/](http://Berria.eus/berrialaguna/denda/)

Bidalketa  
gastuak  
**DOAN**



# Zumarte Abesbatzako gazteek 'Horra-horra' ikuskizunean hartuko dute parte



Aurreko asteburuan 'Horra-horra' ikuskizuna prestatzen aritu ziren Hondarribiko Elkano aterpetxean. Eskubiko argazkia aldiz, azaroaren 11ko saio bereziari dagokio. Argazkiak: Zumarte Musika Eskola.

Pasa den asteburuan, Zumarte Abesbatzako kideak Hondarribiko Elkano aterpetxean egon ziren. Abenduan eskainiko dituzten kontzertuak prestatzen aritu ziren.

Abenduaren 23an, An-

doingo Bastero Kulturgunean kantatuko dute eta abenduaren 29an Errenterriako Kiroldegian. Bietan "Horra-horra" ikuskizuna eskainiko dute.

Bi ekitaldi hauetan 400 haurrek hartuko dute parte "eta asteburu honek denon

lana batu eta sendotzeko baliotza izan du. Oso ondo pasa dute baina lan handia egin eta asko ikasi ere bai", Zumartetik aditzera eman dutenez.

## Saio berezia Sutegin

Azaroaren 11n, kontzertu interesgarri baten lekuko izan

ziren Zumarteko ikasleak. "Familia-klasean, ikasleek koladun pianoa ezagutu eta bertan jotzeko aukera izan zuten". Zumarte Musika Eskolatik aditzera eman digutenez, "esperientzia oso polita eta oso aberasgarria izan zen".

# Edgar Allan Poeren ipuinetan murgiltzeko aukera paregabea

Azaroaren 28an asteazkena, Edgar Allan Poeren ipuinak aztertuko dituzte Sutegiko liburutegian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da solasaldia.

Ana Merinok gaztelarazko literatura solasaldia bideratzen du Sutegin. Berak gidatuko du Poeren inguruko saioa. Azaroaren 28ko emanaldiari buruz gehiago jakin asmoz, ondoko idatzia igorri digute Sutegitik:


"Edgar Allan Poe (Boston 1809-1949) idazlearen lau ipuin izango ditugu ahotan, eta esku-artean, hurrengo li-

teratura solasaldian. Aipatu idazlea ipuin laburren maitatzen hartzen da literatura unibertsalaren historian, eta ondoren idatziko den literaturaren aintzindari ere bai. Bere lanek sormenaren arlo ezberdinetan izan dute eragina, hala nola, beldurrezko ipuinen berrikuntza ekarri zuen ikuspegi psikologiko berri bat, eta estilo eta giro propio bat gehituz, detektibe-ipuinak edo istorioak sortuz, eta zientzia-fikzioaren alorrean biziki eraginez.

Olerkari, literatura kritikaria, kazetaria... Idaztea bere ogibide izan zedin saiatu zen, baina

zenbaitetan larri ibili zen. Oso bizitza gogorra izan zuen, tuberkulosiak inguratuta eta alkoholak harrapatuta, baina harrigarria bada ere, zailtasun horiek lagundu egin zioten giro estu eta larriak sortzen, eta pertsonen gaiztakeria isladatzen.

Hori guztia aurkituko duzue mintzagai izango ditugun ipuinetan, zehazki hauetxe: *Los crímenes de la calle Morgue*, *El corazón delator*, *El tonel de amontillado* eta *Berenice*. Eskuragarri daude Liburutegian, beraz, baten bat nahi izanez gero, pasa bertatik jasotzera. Eta gogoratu, azaroaren 28an,



Edgar Allan Poe.

asteazkenarekin, arratsaldeko 19:00etan, Liburutegian elkartuko gara Edgar Allan Poerekin".

## Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko elkartasun kanpaina, martxan

2003az geroztik egin bezala, Nafartarrak taldearen eskutik, abian da Zuberoako ikastolak laguntzeko elkartasun kanpaina. Ikastolen finantziazioan lagundu, Zuberoan eta bereziki bertako ikastoletan euskararen erabilera sustatu eta tokiko ekoizle zein produktuak ezagutarazteko, NOAUA! bidez eska ditzakezue jada Xiberoko produktu goxoez hornituriko otarrak: elkarte@noaua.eus / 943 360 321

### Ahūzki otarra:

Produktu sorta: ardi gazta zatia (450 g), ahate gibela (125 g), gurinezko galleta paketea (150 g), ezitia (500 g), euskal xerriki pateia (200 g), euskal xerriki odolkia (200 g).  
Prezioa: 40 euro.



Otarrak orain eskatu behar dira eta jaso, San Tomas eguneko azokan.

### Irati otarra:

Produktu sorta: ardi gazta zatia (450 g), ahate gibela (125 g), gurinezko galleta paketea (150 g), ezitia (500 g), txahalki

kontserba piperrekin (berotu eta arrozarekin edo patatekin jateko prest, 640 g), euskal xerriki lukainak (400 g).  
Prezioa: 52 euro.

## Gazte asanbladaren aurkezpena eta Gazte Eguna

Gazte Eguna ospatuko du Usurbilek larunbatean. Hitzordura begira, gazte asanblada berria aurkeztuko dute bezperan, azaroaren 23an; Aztarrika gazte asanblada:

### Azaroak 23, ostirala

■ 22:00 Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladaren aurkezpena Udarregi Ikastolan.

### Azaroak 24, larunbata

■ 11:30 Mahai ingurua Potxoenean: "Talde partaidetzaren inguruko solasaldia eta martxan gara".

■ Ondoren, Tuper Fest bazkaria Aitzaga Elkartearen.

■ 18:30 DJ Ibiltaria. Eguraldiak laguntzen badu, Askatasuna plazatik hasiko da bira.



Larrian Gozo taldea eta Dj Faktori arituko dira gauetz.

■ 22:00 Herri afaria. Sarrerak, Aitzaga tabernan 15 eurotan.  
■ 00:00 Larrian Gozo eta DJ

Faktori.  
■ Deitzailea: Aztarrika, Usurbilgo Gazte Asanblada.

### Nafarroa hegoaldeko euskalgintza

#### laguntzeko 29 kutxa

Azaroaren 14ra arte finkatua genuen epearen baitan, Errigoraren Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta euskalgintza sustatzeko elkartasuna kanpainako 29 produktu kutxa (23 kutxa beltz, 6 kutxa zuri) eskatu dituzue NOAUA!n.

#### Kutxak, azaroaren 29tik aurrera eskuragarri

Aldaketarik ez bada, azaroaren 29tik abenduaren 4ko tartean jasoko ditugu kutxa hauek, jakinaraziko dizuegu. Kutxak hartzera zatoztenean egin beharko dira ordainketak.

#### Informazio gehiago:

errigora.eus

### Zubietako Eskola, udal zerbitzuetan bisitan

Udal zerbitzuetan bisitariak izan dituzte berriki; Zubietako Eskolako kideak. "Zubietako haurrek Usurbilgo Liburutegia eta Udaletxera bisita egin genuen. Bateko zein besteko funtzionamendua eta erabilera erakutsi ziguten", azaldu diote NOAUA!ri. "Liburutegian, eskola liburutegiko kidea egin zen. Udaletxean, funtzionamendua, langileak, alkatea, eta dagozkien lanak ezagutu genituen. Eskaera eraman genuen".



"Udaletxeko funtzionamendua ezagutu genuen".

# Proiektzioak eta irteera, Mendi Aste honetan

Andatza M.K.T.-ren egungo zuzendaritzak, bere azken Mendi Astea antolatu du egunotarako. 2018ko konpromisoak amaituta, 8 urteko ibilbideari amaiera emango diote. Erreleboa hartzeko usurbildarrei eginiko gonbitak zutik segitzen du, ez baita mendizaleen bilguneari 2019an segida ematera inor animatu. “Andatzako ildo jarraituko duen taldetxo osatzea animatzen dizuegu eta erreleborako gaur eguneko zuzendaritza taldearen laguntza izango duzue”, ohartarazia dute Andatza M.K.T.-ren egungo kudeatzailerak.

## Mendi Astea

**Azaroak 22, osteguna**

■ 19:00 Azpeitiar mendizale talde batek Annapurna II mendira igotzeko antolaturiko espedizioari buruzko “Ametsen harria” eta “Azpeitia Annapurna II 86” ikus-entzunezkoen proiektzioak Sutegin, Jose Mari Azpiatzuk eta Josu Bereziartuak aurkeztuta. Sarrera doan.

**Azaroak 23, ostirala**

■ 19:00 Alex Txikon eta Xabier Erro mendizaleak, Ernesto Ezpeleta Bihurri aizkolariarekin Pakistanera autoz eginiko bidaiari buruzko “Aizkora hotsak goi mendietan” ikus-entzunezkoaren proiektzioa Sutegin. Sarrera doan.



Azpeitiko zortzi mendizalek Annapurnako (Nepal) gailurrera igotzeko saiakera egin zuten 1986an. Dokumentala ostegun honetan emango dute.

### “AIZKORA HOTSAK GOI MENDIETAN”

**Alex Txikon eta Xabier Erro mendizaleak,  
‘Bihurri’ aizkolariarekin  
Pakistanera autoz eginiko  
bidaiari buruzko  
ikus-entzunezkoa emango  
dute ostiralean Sutegin**

**Azaroak 25, igandea**

■ 07:30 Alkiza-Hernio-Asteasu mendi irteerara autobusez Oiaro Kiroldigitik.

■ Ibilbidea: 19 kilometro.

■ Izen ematea: azaroaren 21an itxi zuten.

**“Aralar, mundua leku den lurra”**

Mendi Astearen bueltan, proiektzio berri bat ere antolatu du

Andatza M.K.T.-k. ON Proiektzioak eta Landarlan Ingurumen Elkartek ekoizitako “Aralar, mundua den leku lurra” dokumentalarena. Abenduaren 4an 19:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa izango da. “Aralarko ondare natural eta kulturalaren leiho izateaz haratago, hausnarke eta gogoetarako bide ematen duen pelikula da. Adituen adierazpenek eta mundu oniriko bateko pasarteek, Nafarroa eta Gipuzkoaren mugan dagoen mendilerro honen balioa ezagutzera ematearekin batera, kontserbaziorako deia egiten dute”.

**Informazio gehiago:**  
andatza.com

**Antolatzailea:** Andatza M.K.T.

## Futbol partidak

### Haranen

**Azaroak 24, larunbata**

■ 09:30 Alebin mutilak:  
Udarregi 5A-Udarregi 5B  
Udarregi 6A-Udarregi 6B

■ 10:30 Infantil neskak:  
Usurbil-Añorga B

■ 11:45 Infantil mutilak:  
Usurbil B-Urnieta

■ 13:30 Kadete neskak:  
Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

■ 15:45 Jubenilak:  
Usurbil F.T.-  
Euskalduna S.D.

## Eskubaloi

### partidak Oiaro

### Kiroldegian

**Azaroak 24, larunbata**

Eskola Kirola

■ 09:30 Alebin neskak:  
Udarregi 6D-Urnieta 6B  
Udarregi 6A-Udarregi 6B

■ 10:30 Infantil neskak:  
Udarregi B-Bera Bera

■ 11:45 Infantil mutilak:  
Udarregi A-Bergara

Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete neskak  
Territoriala:  
Usurbil K.E.-  
Aiala A.

■ 17:30 Jubenil neskak  
Territoriala:  
Usurbil K.E.-  
Zaisa Bidasoa A.

■ 19:00 Kadete mutilak  
Territoriala:  
Usurbil K.E.-  
Egia Indaux

EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro<sup>2</sup>, 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m<sup>2</sup>ko pisua salgai Aginagan, 65m<sup>2</sup>ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro<sup>2</sup> lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldia, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukaldia handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldia eta sala dituen etxe bat erosi nahi dut. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

## Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun,

sukaldia, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-erakunde bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Camper furgoneta salgai. 2007koa, 130.000km. Oso egoera onean. Dubxa, ohea, frigoa, armairuak, termikoki aislatua, mahaia, argiak, aurreko eserlekuak biragariak... (679471831 Jon)

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke.

653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekakalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sar-tzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekakalean 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretorian, info@restaurantearatz.com

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da aste-buruetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, taber-

netan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nitzake, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zainduko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zainduko lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zainduko. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zainduko. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zainduko, ospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila

## Heriotzak

## Salomé Rubio Crespo

92 urterekin hil zen azaroaren 17an Usurbilen



**OHARRA:** 2018ko azaroaren 30ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorian-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: azaroaren 26an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldetik. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketara lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketara lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan arituko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketara lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketara lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitate umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehentik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... doitzen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean,

120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposio pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

#### BESTELAKOAK

3 metroko tolo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Bario sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Mandarin japoniarrik saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikoto bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehentik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaindaria.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 24** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 25** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 26** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 27** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 28** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Azaroak 22 - Abenduak 02

**Osteguna 29** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 30** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 01** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 02** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda azaroa

## 23 ostirala

- Euskaraldiaren hasiera Ikus 17. or.
- Mendi Astea: "Aizkora hotsak goi mendietan" proiektzioa 19:00etan Sutegin. Usurbilgo Gazte Eguna 22:00etan Aztarrrika Usurbilgo Gazte Asanbladaren aurkezpena Udarregi ikastolan.

## 24 larunbata

- "Bakean dagoena bakean utzi!" bakarrizketa Sutegin. 19:00etan Sutegin.
- Usurbilgo Gazte Eguna Ikus 26. orrialdea.

## 25 igandea

- Erle Eguna. 11:00-14:00 frontoian.
- Mendi Astea: Alkiza-Hernio-Asteasu txangoa. 7:30ean Oiardotik (aurretik eman behar zen izena).
- #Azaroak 25: 12:30ean Kontzentrazioa frontoian. 18:00etan "Pago justo" film proiektzioa Sutegin.

## Festa gozoenaren atarian gara

Erle eta eztiaren festa egun nagusia igandean azaroaren 25ean. Erle Lagunak taldeak antolatuta, sektoreari lotutako salmenta postuak, edota Euskal Herriko ezti eta gozogintza txapelketak.

### 20. Erle Eguna

Azaroak 25, igandea

- 9:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, eztiak, ontziratze prozesua...), postuetako salmenta, marrazki lehiaketa, bideoak Sutegin.
- 13:30 Erleek beraiek ekarritako sari banaketa: Ezti Lehiaketako irabazleak/



Igandean, Erle Eguna. Azoka 11:00etan hasiko da eta sari banaketa eguerdiko 13:30ean.

Gozogintzako irabazleak/ Marrazki lehiaketarako irabazleak. Ezti desberdinen dastaketa Euskal Herriko XX. Ezti lehiaketa eta gozogintza lehiaketa. Antolatzailea: Erle Lagunak.

## Gurasoentzat bi hitzaldi, Hitz Ahoren eskutik

**LH2tik LH4ra arteko mailetako gurasoentzat:**

Ume eta haurren elikaduraren eguneroko zalantzen inguruko hitzaldia antolatu dute. "Prestatu zuen galderak!".

- Hitzlaria: Alazne Agirrezabalaga.
- Azaroak 27 asteartea.
- 17:00etan, Ikastola gorrian.

**LH 5, 6 eta DBH mailako gurasoentzat:**

Gazteen elikadura gurasoen esku egoteari uzten dion garaian, zer egin dezakegu euren elikadura babesteko?

- Hitzlaria: Alazne Agirrezabalaga.
- Azaroak 28 asteazkena.
- 17:00etan, Ikastola gorrian.

### Datozenak

## San Tomas

## Azokarako

## produktu bilketa

Abenduaren 16an ospatuko dugu San Tomas Azoka. NOAUA! Kultur Elkar- teak antolaturiko hitzordu honen baitan, ohi bezala, sagardo eta babarrun txapelketen sari banaketa ospatuko dugu.

**Izen-ematea astelehenean zabalduko dugu**

Lehiaketa hauetarako izen ematea astelehenean (azaroak 26) irekiko dugu. Urtero moduan, etxean ekoiztutako sagardo eta babarruna ekarri ahalko duzue NOAUA!ra.

**8 sagardo botila, babarrun kilo bat**

Sagardoaren kasuan, 8 botila (sagardotegiek ezingo dute parte hartu). Babarrun txapelketarako, aipatu elikagaitik kilo bat. Izen emate epea bitan zatitu dugu: azaroaren 26tik 30era eta abenduaren 10etik 13ra bilduko ditugu lehiaketa hauetarako produktuak, aipatu moduan, kultur elkarte honen egoitzan (Bordaberri 3, behe).

**Argibide gehiagorako:**

943 360 321

[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Usurbil Autoak**  
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA ☎ 943 36 10 79

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



## ZURE BETILEAK APAINDU GURE TRATAMENDU BERRIEKIN!

- LIFTING-a
- BETE ETA LUZATU
- MOLDEATU ETA TINTATU

Eguerdian irekital Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

# ARRATZ

*zabaleta anaiak*



**29 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten**  
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@eskainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

**Josue**  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Borda Beri Kalea, 2 3º A  
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



**PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**Antonio URRUZOLA**  
AROTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
*Salsamendi Arregi, Iñaki*  
AROTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

**J. R. IBARGOEN S.L.**

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriabilbargoien.arotzgi.net / j.r.bargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

**antenas Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri arrain**  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarrainiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOMUHEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 beheka • 943 36 80 04



**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**ventamix**

· LEIHOAK NEURRIRA  
· BARANDILAK · ALUMINOA-PVC

943 59 32 58 600 80 30 05  
info@ventamix.com · Ugaldea polig. 18, USURBIL